

ITXI BEGIAK

Libiako gerra, Afrika, gau ilun bat da. Gaueko 23:30ak. Lortu duzu ezkutatzea. Zure bihotzaren taupaden hotsa inoiz baino ozenago entzuten da. Badakizu aurkitzen bazaituzte hau zure bizitzako azken gaua izango dela. Mina, beldurra, tristura, botagura. Jada ez dakizu zer den ozenagoa: zure bihotzaren taupadak, zure pentsamenduak edo ez hain urrun entzuten dituzun armen zaratak.

Denbora asko daramazu etsaiarengandik ihesi. Gerra latz honetan gertukoenek ere burua galdu baitute. Ezin zara inorekin fidatu; senideak ere arrotzak zaizkizu orain, badaezpada. Badakizu etsaiaren helburua jendea hiltzea dela eta ziur zaude zu ez zarela salbuespena izango. Egun hauetan gertatutako guztia gogoratzen hasi zara. Duela egunak zure familia guztiak ihes egitea lortu zuela, baina zu, ordea, soldadu batzuk harrapatu zintuzten. Egunak pasa zenituen soldaduen menpe. Hamasei urte dituen beste edozein nerabek baina gauza askoz okerragoak ikusi dituzu, inoren begiek sekula ikusi behar ez lituzketenak: bortxaketak, hilketak, gosetea eta gaixotasunak. Aste batzuk pasata lortu zenuen alde egitea. Soldaduak distraitu eta ahalik eta jende gehiena, baita zure burua ere, bizirik ateratzeko gai izan zinen. Errealitatera bueltatu zara, ez dago denborarik pentsatzeko, momentu honetan zure bizitza zure sentimenduak baino garrantzitsuagoa da.

Basoan zuhaixka artean ezkutaturik pentsatzen hasi zara gerrak zenbat bizitza lapurtzen dituen, boterea dutenen gatazken ondorioz. Danba! Zarata bat entzun duzu. Ez dago pentsatzeko astirik. Danba! Korrika hasi zara. Gorputz osoa dardarka korrika jarraitu duzu, baina gosearen eta zure gorputz osoa estaltzen duten zaurien ondorioz ezin izan duzu gehiago. Gauaren iluntasunean, ikusi ezin dituzun pertsona askoren gorpuak daude. Konturatu ez zarenez estropezu egin duzu eta erori egin zara. Lurrean etzanda pausuak entzun dituzu. Eroritakoan hartutako kolpearen ondorioz, begiak itxita dituzula konturatu zara. Begiak ireki dituzu. Fusil bat daukazu zure begien aurrean. Bihotza bularretik aterako zaizula dirudi, beldurrak gorputz guztia zeharkatzen dizu. Gau iluna izan arren, ilargiaren argiak apur bat ikusten uzten du ingurua. Agian nahiago zenuke ez ikusi. Fusilarekin, zure aurrean dagoen pertsona ezaguna egiten zaizu. Begietako lokatza ahal bezala igurtzi eta etsaia ezagutzen duzu: zure aita da. Ziur zaude bera dela, baina ez du hala ematen, bere begietan islatzen den maltzuratasuna ez delako zure bizitzako hamasei urte hauetan ikusi

izan duzun espresio bera. Malkoak etengabe isurtzen zaizkizu masailetatik. Gainean pixa egin duzu. Kontrola galdu duzu, guztiz; baina egoera honetan ez diozu horri garrantzirik eman. Zure egoera latza den arren, jada zure aita ematen ez duen gizon hori belarrira hurbiltzen ari zaizula ikusten duzu. Zu jarraitzen egoteaz arnasestuka dagoela nabari da. Bere arnas beroa zure belarrian sumatu duzu. Dardarka hasi zara. "Bizitza osoa pasa dut momentu honen zain, itxi begiak". Zer? Egoera ez duzu ulertu, eta ez dakizu oso ondo zergatik edo nola, baina zure gorputza automatikoki balebil bezala, begiak itxi dituzu gogor, irekiko bazenitu zer gertatu daitekeenaren beldurrez.

Mina, beldurra, tristura, botagura... Danba! Beste bizitza lapurtu bat. Bizitza osoa aurretik zenuen baina ematen du hori ez dela garrantzitsua. Jada ez daukazu ez minik, ez beldurrik ez tristurarik ezta botagararik ere, baina horren truke bizitza ere kendu dizute. Hor gelditu zara, etzanda, malkoak oraindik masailetan, beldur espresioa aurpegian, beste milaka pertsona bezala, gerra noiz bukatuko zain zure gorpua jaso dezaten. Edo agian gerra

amaitu eta inor ez da milaka gorpu horietaz gogoratuko. Noizbait pertsonak izan diren guzti horiek, orain aurpegian beldur espresioarekin eta lurrean botata geratu diren gorpu hutsak bilakatu dira. Denak ezezagunak izan arren, zerbait partekatzen duzue: gau honetan bizitakoa.

Zure aitak korrika ihes egin du. Zu lurrean botata gelditu zara. Zer egiteko gai izango ote da?

Uxue Piris
(B kategoria)